

Zainak: azal grafikoak. *begira opuntia!*

Alberto Díez Gómez

Artista eta doktoregaia Arte Ederren Fakultatean
Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco UPV/EHU

¡mira opuntia!

Argitalpen honen azalak landare-zatien lagin laburra jasotzen duten irudiek osatzen dituzte, *paisaia* irrikatua, poetikoa, gertagaitza... gogorarazten digutenak. Urrezko orla banaletan inskribatutako paradisuen irudiak; edo gertaera baten fede ematen duten zein egitate baten irudikapena osatzen duten estanpak. Horien artean benetako harremana existitzen baita, korrespondentzia bat. Batzuk besteetatik *jaiotzen* dira eta. Paradoxa baten aitzinean geundeke, alegia, irudirik gordinenak, bai eta *adierazgarrienak* ere, izaera amestuetatik eratorriak direla adierazten diguna, beste mundu bati dagozkionak baina, hala ere, izan badena.

Haiei buruz zerbait esan liteke, berorien konposizio formalari buruz: neurri txikiko irudi bat erabiltzeak, ia xehetasun gisa edo irudi intimo lege, begia kontu handiz jartzera gonbidatzen duena, bere intimitatea desestaltzera. Angeluak hautsi nahi izan baitira, ohiko argazki-formatu angeluzuzena, karratua, etab. Obaloe formarik onena ote den... zirkunferentzia hausten duen forma erregularra, honako hau ere. "Pisuak" konposizioan orekatzen diren (ala ez). Forma hura bestearekin "mintzo" ote den. Azalen artean harmonia dagoen (ala ez), eta abar luzea. Ezerk ez du axola, berariaz ezertxok ere ez. Badakigu *gauza bera* mila modu desberdinetan egin zitekeela.

Aitzitik, jarrera eta ekintza bati buruz hitz egingo dut, erreala eta autonomoa bada ere, metafora bezala funtzionatzen duena. Azal horietan ikus ditzakezuen irudiak paisaia erabat pertsonal eta subjektibo bati dagozkio, unerren batez nigan eragina izan duena. Baina beroriek ere ez dira aipatzen ari naizen egintza, baizik eta lekukotasun-irudien izaera dute. Bistan denez, *orain* ez da gertatzen ari, *ez naiz egiten ari*, ezta hazi baten ernamunari edo aldaxka baten zatiketari ere ez natzaio urreratzen; diskurtso bat zutituz gorpuzten ari bainaiz, ekintza horrek niretzat duen sinbolikotasunari buruz.

Ekintza honen metodologia deskribatzen duten lau aditzak hauexek dira: lapurtu, zatitu, erein eta landarea erreproduzitu. Lehenengoak ez du misterio larregirik.

"Hurrengo biak erreprodukzioari zerbitzu egiten dioten aditzak dira" –esan zuen bere baitarako, Orduan.

"Azken honek *bikoiztearen* edota *zabaltzearen* adiera bikoitza du" –esan zuen Orain, ahoa ireki gabe.

Patioko opuntiak bart gaueko haizeari besoak hausten utzi dio. Behin lurra ukituz gero, oso erraz utziko dute lehen arantzak zeuden tokian sustrai sendoak sortzen. Horrela bada, guretzat txit ezaguna den ihiaren antagonistak, bere partizioa beretzat bizitza-aseguru bihurtzen du.

"Bazkalorduan, diskrezioz, patioan eroritako puska horietako bat hartuko dut. Edertasun hori hartu eta nirekin eramango dut etorri naizen lekura. Begira opuntia! Zer nahi dut zugandik? Eternitatea nahi dut" –esan zuen bere artean, Orduan.

Iraila da Espainiako mendebaldean, beroa igarota, pinuek eta xarek izerdia jariatzen dute, ekaitzen ondoren iltze eta kamamila usaina nozitzen da, zedro olio leuna. Atzamarretan bere biskositatea nabari dezakezu, bere goizeko freskotasuna, baina baita bere arratseko airea ere, geldia, bildua, inguratzailea, lurrunaren tankerakoa. Orduan izaten da zomorroak beren zurtoinei itsatsita geratzen direnean eta hodeiak berrokaleen gainean zabaltzen direnean.

Cita bibliográfica recomendada para este artículo:

DÍEZ GÓMEZ, Alberto

"Zainak: azal grafikoak. *begira opuntia!*",

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, nº 41, 2023; pp. 161-163

<http://dx.doi.org/10.13140/RG.2.2.27261.33769>

Balkoi hau, ikusten al duzu? Txunbera, mizpirondoa, granadondoa, sagarrondoa, epiphyllum, palmondoa, hau ez dakit zer den, baina loreak ematen ditu udaberrian, beti bizidunak, sasia, iratzea, papiroa, mahasti birjina, Adanen saihets-hezurra, gutxiagorik ez... eta orain kriseilua, hildakoen lorea, baina hau erositakoa da, ez du kontatzen –berekiko esaten ari baitzen, Orain. Nire lorategia da, nire lorategi gaixoa, beste paisaia batzuen atalez osatua. Hemen espezie horietako bakoitza altxatzen da, horma-hobietan bezala, nire bizitza presiditu dezaten” –eta handik gutxira– “Promesa oso bat sei metro koadrotan. Izan ezin duena izan nahi duen beste bat”.

Orduan esan zuen, isilik. “Eta hezur distiratsu hau hemen landatuko dut, itxaropen handirik gabe, amaren geranioaren ondoan. Zer nahi dut zugandik? Ez dut ezer nahi.

“Baina, zalantzarik gabe, ederragoa zara lurrean, hain indartsua, aberatsa, itxaropentsua. Ezin dizut eman eskatzen didazuna” –esan zuen beretzat, Orain.

“Era honetara egingo dugu: Madrilgo balkoi bakoitzak landare bana izan dezala” –esan zuen Isabel Díez Ayusok, ozenki. Obeditu dezagun, ergelok! Obeditu dezagun, o jakituna! Zer nahi duzue esatea?... *Paisaien errealitatea ahula da*, geure esku dago, horrek suposatzen duenarekin, eta naturaren menpe ere bai, beronek baitu beti azken hitza.

“Baina guk ordezkari horiek bezala egingo dugu, –esan zuen bere artean, Orain– jartzen gaituzten tokian haziz”.

*

Aurreko azaleko irudia: txunbera (*Opuntia ficus-indica*), San José de las Batuecas monasteriokoa (Salamanca). Zatia.

Atzeko azaleko irudia: Japoniako mizpirondoa (*Eriobotrya japonica*), mizpira baten hazitik jaioa, fruta-denda batean lan egin nuen urteetan jan nuen. Hazia.

Bilbo, 2023ko urria.



Irudia 1

Azalen kokapenaren adibidea. Alberto Díez
Jatorrizkoa: *begira opuntia!*, 2023. Argazki-muntaia

Paisaien errealtatetik: oratze artistiko, estetiko eta soziokulturala
Desde la realidad de los paisajes: abordaje artístico, estético y sociocultural

ANA ARNAIZ, XABIER LAKA ANTUXUSTEGI, ISUSKO VIVAS ZIARRUSTA, JUAN ANTONIO RUBIO-ARDANAZ Eds.

